

5. Kanalak

Bezeroengana iristeko, gure markaren hedapena bermatuko duten hainbat neurri eta estrategia hartuko ditugu. Adineko pertsonen joan-etorri handiko lekuetan propaganda egiten hasiko gara, hala nola egoitzetan, eguneko zentroetan, erretiratuen klubetan eta baita taberna eta jatetxeetan ere.

Era berean, osasun-erakundeetan izango gara fisioterapia profesionaleko gure zerbitzu pribatuei aldaketa eman nahi dieten bezeroak bilatzeko.

Gainera, gure marka kirol-aisialdiko lekuetan hedatzen saiatuko gara, kirolari eta kirolari fanatiko guztiengana iritsi ahal izateko. Hau aurrera eramateko, datorren denboralditik aurrera Beasain KE taldearen babesle ofizialak izango gara. Horrela, gure bezeroek abantailak izango dituzte klubean. Guran konfiantza duten guztiek deskontua izango dute bazkide txartelean